

1992. urtean katalanez argitaratu eta orain euskaraz argitaratzen den artikulua honetan, Isidor Mariak azken hamarkadan hizkuntz normalizazioan aplikatu den ereduari buruzko hausnarketa sakona egiten du. Autorearen ustetan hasierako eredu hori krisian dago edota, hobe esanda, agortuta; eta, berandu baino lehen zaharkituta dagoen eredu hori bertan behera utzi eta berri bat sortzeari ekin behar zaio. Mariak indarrean egon den eredu horren zahartzearen arrazoiak aipatzen ditu bere premisak, mugak eta aplikazioak aztertuz. Bestalde, eredu berri baterako hamar oinarri ere proposatzen ditu. Artikulua Katalunyan hizkuntz politikan gauzatzen ari diren aldakuntza sakonen —Plangintza Orokorra kasu— adierazle da. Zentzu horretan, Euskal Herrian egin beharreko hausnarketarako lagungarri suertatzen dakiguke.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIO EREDU BERRI BATERANTZ

Isidor Mari

Kataluniako «Termcat» Terminologi Zentruko zuzendaria eta Generalitateko Hizkuntz Politikako zuzendariordea
Itzultzaileak: Joseba Ossa eta Imanol Azkue

HASIERAKO EREDUAREN OSAKETA ETA KRISIA

Gerora Katalunian, Valentziako Komunitate Autonomoan eta Balearietan ezarri zen hizkuntz normalizazio eredu frankismoaren azken urtean eta trantsizioaren lehenengo urtean artean gorpuztu zen. Eredu horren ildo nagusiak Kultura Katalanaren Kongresuko Hizkuntza Arloaren erabakietan jaso ziren garai hartan (ikus *Resolucions I*) eta desberdintasun batzuekin bazen ere, lurralde bakoitzari zegokion gobernu autonomikoen instituzionalizatu egin zituzten eta gerora 1983 eta 1986 urtean artean argitaratutako hizkuntz legeetan artikulatu zen.

Hizkuntza Katalanaren Kongresuaren planteamenduen eta gerora horietaz egin zen aplikazio errearen arteko desberdintasun azpimarragarrienak bi dira nagusiki:

Alde batetik, konstituzio eta estatutu markoek estatuan oro har eleaniztasun desberdineko sistema eratzen dute eta autonomi elkarte bakoitzari zalantzako ofizialtasun bikoitzeko sistema ezartzen dio; bertan ez dira lurralde eskubideak eta ahalmen pertsonalak argi eta garbi zehazten, eta horrela lurraldeko berezko hizkuntzaren lehentasuna ez da ziurtatuta geratzen. Horixe zen *Els Marges* agiriak egiten zuen salaketetako bat,

1979an (marko juridikoa zehaztu berria zelarik) kaleratu zenean.

Beste aldetik, Kongresuko erabakiek aldarrikatzen zutena ez da bete, eta horrela ez da benetan gauzatu hiru autonomi elkarten arteko jarduera bateratua (are gutxiago Herri Katalan guztien artekoa). Hizkuntza katalanaren kontzeptzio bateratu bera ere zaildu egin zen, Valentziako Komunitate Autonomoko Estatutuak *valencià* izendatzen baitzuen, eta hizkuntza eta kultura alorretan Balearretako Estatutuak eta hizkuntz legeak lan-kidetzatza instituzionalizatua aurrikusten zuten arren, bide horretan emandako aurrerapausoak hutsaren hurrengoak izan direla esan daiteke.

Baina bi desberdintasun nagusi hauek eta garrantzi gutxiagoko beste batzuk hartu eta abstraituz gero, zera esan daiteke, hiru autonomi elkartean burututako hizkuntz normalizazio politikak Kultura Katalanaren Kongresuko planteamenduen azpian zegoen oinarritzko hipotesi bakarrean oinarritzen zirela; eta planteamendu horiek honela labur genitzake:

A. *Hizkuntz normalizazioak bi faktore osagarri elkarteari esker egingo du aurrera; hiritarren jarduera (gizarte zibilaren bultzada partehartzailea) eta aginte publikoen jarduera (hizkuntz politika).*

B. *Aginte autonomikoen jarduera arautzailea bere eskumen gaietan soilik burutu daiteke, eta bereziki administrazio eta heziketa esparruetan (nahiz eta azken honi dagokionez Balearren eskumenak oso mugatuak izan).*

D. *Hizkuntz normalizazioa lehen aipatutako sektoreetan jarduera arautzailea burutuz gero lor daiteke, eta horrekin batera titularitate publikoko komunikabideen sorrerarekin (irratia eta telebista bereziki) eta beste sektoreetan laguntza, bizkortze eta suspertze neurriekin (titularitate pribatuko komunikabideak, kultur industriak, jarduera ekonomikoak, komertzialak, profesionalak, sindikalak, kirolekoak, aisialdikoak, eta abar). Hiritarren bultzada pertsonalak gizarte zibilak instituzioen jarduera osatzea eragingo du.*

Gaur egungo ikuspegitik, eta hamar urtean zehar autonomian bizi izan ondoren, hipotesi horrek bere horretan jarraitzen duenaz ziur egon al gaitzke? Hizkuntza katalanaren egoeraren balantzea konstituzio eta estatutu marko berrian, hori izan zen 1986 urtean Hizkuntza Katalanaren Nazioarteko II Kongresuaren aztergaia, eta bertan hartutako erabaki eta aktek hausnarketarako izugarritzko balioa duten gaiak eskaintzen dizkigute.

Beraz, oraindik baliaigarria al da aukeratutako hizkuntz normalizazio eredu? Agian hau izango litzateke azkenaldian iritzi publikoko zenbait sektore adierazgarritan azaldutako egoneza isladatzen duen galdera. Eta gure testuak ere hausnarketa horretan lagungarri izan nahi du.

PREMISAK, EREDUA ETA HONEN APLIKAZIOA

Ziurrenik, erantzunak aurkitu ahal izateko beharrezkoa izango da bereizketa garrantzitsu batzuetatik abiatzea:

«Konstituzio eta estatutu markoek estatuan oro har eleaniztasun desberdineko sistema eratzen dute eta autonomi elkarte bakoitzari zalantzako ofizialtasun bikoitzeko sistema ezartzen dio; bertan ez dira lurralde eskubideak eta ahalmen pertsonalak argi eta garbi zehazten, eta horrela lurraldeko berezko hizkuntzaren lehentasuna ez da ziurtatuta geratzen»

**«Oraindik baliagarria
al da aukeratutako
hizkuntz normalizazio
eredua? Agian hau
izango litzateke
azkenaldian iritzi
publikoko zenbait
sektore adierazgarritan
azaldutako egoneza
isladatzen duen
galdera»**

1. *Ereduaren premise* mugatzen edo eragozten al dituzte emaitza satisfactorioak? Zehatzago esanda: ereduak espero diren emaitzak ez baditu ematen, konstituzio eta estatutu markoaren berdintasun ezagatik eta zehaztapen ezagatik al da? Estatuko organoak, oztopoak ezarriz, tartean jarri direlako al da? Herri Katalan guztietan aurrez suposatutzat ematen zen ekintza bateratasun ezagatik al da?

2. *Eredu beraren mugak* al dira eredu hori nahikoa ez izatea arrazoitzen dutenak? Zehazkiago adierazita: gizarte zibilak normaltasunez parte hartuko zuela suposatuta ere, hizkuntz normalizazioak aurrera egitea bermatzeko nahikoak al ziren bere eskumeneko sektoreetako jarduera arautzailea, irrati eta telebista autonomikoen sorrera eta beste alor guztietako bizkortze neurriak?

3. Ez al da izan ereduaren *aplikazio* praktikoan agertutako *mugak* (edo aplikazio praktiko batzuetan, bederen) espero ez ziren emaitzak eman dituenak? Hots, gizarte zibilaren partehartze erreala ez al da behar adinakoa izan? Autonomietako aginte publikoen jarduera arautzaile eta suspertzailea eskasa edo okerrekoa izan al da?

Ziurrenik, hizkuntz normalizazio ereduaren egungo krisia azaldu ahal izateko erantzunak ezingo ditugu hauetako galdera bakar batean aurkitu. Agian denak orokorrean hartu beharko ditugu. Hala ere komenigarria da horietako bat bera ere ez ahaztea, eta normalizazioa oztopatzen duten zailtasunak non aurkitzen diren argitzen ahalegintzea. Saia gaitezen, bada, azaldu ditugun galderei erantzunak —derrigorrez eskematikoak— ematen.

1. PREMISAK

1.1. Estatuko eleaniztasunari dagokionez, lege ordenamenduan legeztatzen den berdintasun ezak, eta estatuko organo orokorrek egiten duten horren interpretazio mugatzaileak, hizkuntz normalizazioa era larrian oztopatu dute.

1978ko Konstituzioa eleaniztasun desberdineko adibide argia da: hizkuntza guztien artean estatu ofizialtasun banatua ezarri ordez (hizkuntza nazionalak izateagatik, estatua denek berdintasun egoeran osatuz) eta bakoitzari bere inguruan lurralde ofizialtasun eskusiboa (eskubide personal simetrikoen aitopenearekin mugatua) eman ordez, Estatuko organo amankomunetan gaztelaniaren ofizialtasun eskusiboa ezartzen du eta autonomi elkarte bakoitzean, aldiz, gaztelania eta beste hizkuntzen arteko ofizialtasun banakatua. Beste era ulergarriago batean esanda: ingurune amankomunak eskusiboki gaztelaniarentzat gordetzen dira eta hizkuntz bakoitzaren ingurune partikularrak, berriz, gaztelaniarekin banatu behar dira.

Konstituzioa EBO n zenbait hizkuntzatan argitaratu zen arren, gerora Estatuko organo orokorrek (exekutibo, erregelamendugile eta judizialek) izan

duzen jarrerek ez dute ildo horretatik jarraitu; ez du jarraitu gero eta berdintzaileagoa izango litzatekeen eleaniztasuna aitortzen, onartzen eta bereganatzen. Konstituzioak horretara behartzen ez zituelako aitzakia hartuta bai ministeritzak bai auzitegi zentralak katalanez aurkeztutako idazkiak ez dituzte onartu, eta hara noraino iritsi diren, non Gorte Orokorrek Konstituzioa ontzat hartzeko formuletan Autonomi Elkarteetako hizkuntza ofizialen erabilpena eragotzi egin baitute, nahiz eta horrela argitaratuta egon (!). Eman diren irekiera aztarna txikiek —adibidez Senatuko batzorde batean beste hizkuntzen erabilpena onartzea— oso geldo egiten dute aurrera eta horrek (gure?) instituzio estatalen intolerantzia sakona eta mesfidantza baieztatu besterik ez du egiten.

Estatuaren jarrera hauxe bera ikusten da bai barne politikan eta bai politikan ere. Estatuak elebakar hutsa izango balitz bezala jokutzen du, inolako begiramendurik gabe. Eta salbuespen urri batzuk baldin badaude ere, araua egiaztatu besterik ez dute egiten. Bi adibide: hezkuntza sistema, katalana ez da —bere lurraldetik kanpo— ezta aukerazko hizkuntza modernoa ere (atzerriko hizkuntzak baino gutxiago, beraz); Europako Elkartera sartzean estatuko ordezkarietatik inork ez zuen 1958ko 1. Araudiko 8. artikulura jo; horrela egin izan balute, momentu horretatik katalana errekonozituta geratuko zatekeen.

Autonomi elkarteetako lurraldeetan ematen den ofizialtasun bikoitzari dagokionez, estatuaren menpe dauden erakundeak beraiek dira (administrazio periferikoa, Justizia, enpresa paraestatalak) normalizazioan atzeratuenak daudenak. Estatuko araudiak berak (adibidez etiketaia edo errepide seinalizazioan) eleaniztasun berdintzailea bermatu ordez «gutxienez Estatuko hizkuntza ofizialaren» erabilpena behartzeaz soilik arduratzen da, segurtasun edota osasun publikoko arrazoiengatik ulergarria izan zitekeena baino askoz ere urrunago joanez. Auzitegi Konstituzionalaren epaiei dagokienez, alde batetik instituzio autonomikoei hizkuntz sistemaren oinarri orokorrak ezartzeko gaitasuna eskumen materiala duten sektoreetatik kanpo ere aitortu badie ere (ikus 2.1. atala, aurrerago), beste aldetik autonomi elkarteetako berezko hizkuntza ofizialak ez eza-gutzea alegatu ahal izatea onartu du, horrela hizkuntz ofizialtasunaren izaera berari aurka eginez eta gaztelaniaren aldeko beste desberdintasun berri bat ezarriz.

Dirudienez Estatuko hizkuntz politikaren helburua —orain artean sekula azaldu edota arrazoitua izan behar ez izanak ematen duen erosotasuna dela medio— gure hizkuntz eremutik kanpo katalanaren hedapena oztopatzea da, eta eremu horretan bertan, soberan dagoen bigarren hizkuntza izan dadin ahalegintzea. Beraz, zailtasun larria —baina ziurrenik aurrikus zitekeena— izan da eta inola ere ez hizkuntz normalizaziorako bultzada. «Hizkuntz litsak» berak, nahiz eta opari eskuzabal gisa aurkeztuak izan, betidanik izandako jazarpenen ordainketa moduan hasieratik Estatuak eman beharko zukeen finantza laguntzaren zati txiki bat besterik ez dira.

1.2. Hizkuntza katalaneko lurralde guztien arteko koordinaziorik ezak

**«Hizkuntz
normalizazio ereduaren
egungo krisia azaldu
ahal izateko
erantzunak ezingo
ditugu hauetako
galdera bakar batean
aurkitu»**

**«Ingurune
amankomunak
esklusiboki
gaztelaniarentzat
gordetzen dira eta
hizkuntz bakoitzaren
ingurune partikularrak,
berriz, gaztelaniarekin
banatu behar dira»**

hizkuntz komunitate beraren barruan hiritarren eta erakundeen funtzionamendu naturala eragotzi du.

Trantsizioan hain aipatua eta agerian izan zen «Herri Katalanen» ideia badirudi politika erreal eta eraginkorraren begibistatik desagertu egin dela. Egia esan, planteamendu asmo oneko eta laino batzuk erabat burugabeak ziren, abiapuntu utziezintzat hizkuntza, kultura eta aukera nazionala hartzen baitzituzten eta hortik abiatuta, inolako ñabardurarik gabe, independentzia politiko bateratu, berehalako eta bat-batekoa ondorioztatzen baitzuten.

Hori horrela bada ere, ez dago inolako aitzakiarik lankidetzaren egitasmo moderatu, bideragarri eta posibilista bat ez eraiki izana zurituko duenik, ametsezko proposamenetatik desberdintzeko hain zuzen ere. Nazionalismo aldetik kontziente diren sektoreentzako gauzarik harrigarrienetakoa (eta batez ere Printzerritik at) zera da: Katalunian hamar urtez gobernu nazionalista izan ondoren, instituzioen arteko lankidetzaren ezer gutxi aurrreratu dela, nahiz eta Balearietako Parlamentuak (Kataluniako Parlamentuaren laguntzarekin) lankidetzaren hitzarmen zabala ezartzea argi eta garbi eskatu zuen.

Gai hau ezin izan da oharkabean pasa, Hizkuntza Katalanaren Nazioarteko II. Kongresuak bere garaian argi eta garbi adierazi baitzuen. Orduan zer? Inolako arazorik ez izateko nahita ahaztea erabaki dela pentsatu behar harko ote dugu?

Egia da Valentziako Komunitate Autonomoko egoera nahasiak irteera globala oztopatu egin duela; baina ez al litzateke izango espainolismoaren izugarritzko eta gehiegizko arrakasta edozein irteera partzial ere eragozteak?

Agian ez zaio behar adinako garrantzia eman benetako lankidetzaren ezartzeari, hau da, maila sinboliko soilak gainditu eta lankidetzaren praktikoa ezartzeari.

Ez da komeni, ordea, alderdi sinbolikoak gutxiestea. Gero eta gehiago eta hobeto eratzen den komunitate bateko kide izateak sortuko lukeen efektu psikologikoa eragile ona izango litzateke, eta ez bakarrik «periferikoen-tzat»; baita Katalunian eta inguruetan ere. Artikulazio horren gabeziak (edo desartikulazioak) Kataluniatik kanpo ere eragin desmoralizatzaileak izaten ditu.

Badago ideia bat «Herri Katalanen» ideia instrumental soil moduan hartzen duena, baina sinesgarritasuna eta aukerak irabazi ordez gero eta gehiago urruntzen ari da. Zera esan nahi dut: katalana dakiten hiritar guztiek (euren lehen hizkuntza izan ala ez izan) eta katalana erabiltzen duten entitate eta enpresa guztiek (euren lehen hizkuntza izan ala ez izan) beharrezkoa dute *katalan hiztunen merkatugunea* sendotzea, lana aurkitu ahal izateko lan merkatu edota bezero izan litezkeen multzo gisa. Hiritar hauek gehienek (eta zer esanik ez, entitateek) ez dute nazionalismoan militatzen. Nahi duten gauza bakarra euren lan eta ekonomi aukerak

pixkanaka zabaldu eta indartzea da. Zer itxaron dezakete horiek, zapuztuta eta galduta baldin badaude?

Itxura batean hizkuntzarekin loturarik ez duten gaietan hitzarmenak lortu ahal izateaz gain (ekonomian, garraio eta komunikazioetan, kirolean), ez da ulertzen valentziarrengatik ez bultzatzea alde biko hitzarmenak hizkuntza katalaneko beste lurralde bakoitzarekin —unean uneko lankidetzatza txikiak baino zerbait gehiago— edo, hobe ikusiko izan balitz, hasiera baten interesatuta azaltzen ziren lurraldeekin alde askotako hitzarmen bat, gerora beste herrialdeak berarekin bat egiteko ateak zabalik zituena (Nederlandeko Hizkuntza Batasunaren antzera).

Valentziarrekin, hizkuntz identitatearen onarpen argitik abiatzen den akordio bat lortu ezin izan bada ere, ezin al zen adostu eurek onartzeko prest leudekeen hizkuntz kidetasun maila errespetatuko lukeen akordioa, eta horrela bide praktikotik aurrera egin, Kontseilu Nordikoko herrialdeek egiten duten moduan?

Nazioarteko akordioek, adibidez, Roselló eta/edo Algerrekin egitasmo bateratuetan elkarteko fondoan erabilpena (LINGUA programa bera, kasu) ahalbidetuko lukete; halaber, noizbait Andorra estatuaz baliatu (han katalana da hizkuntza ofizial bakarra), forum jakin batzuetan ahots katalana izateko, adibidez Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Konferentzian. Nolanahi ere, katalanak European duen presentzia sendotuko lukete.

Autonomi elkarten arteko akordioek katalanaren egoeraren alde egin lezakete Aragoiko Zerrendan eta, horrela, zenbait sektoretako jarduera bateratu zehatzak indartu: Administrazioeko eta Irakaskuntzako hizkuntz politika, eremu komunikatibo katalan bat sendotzea, kultur eta hizkuntz industriekiko politika amankomuna, erakundeak hiritarren hizkuntz aukeretara eta eleaniztasunera egokitzeko prozesuei antzeko moduetan ekitea, kanpora begira politika bateratua, eta abar. Bestalde, Estatu mailan daukan garrantzia sendotu egingo litzateke.

Bide honi gogoz ekitera behartuko duen erreibindikazio sozial zabalik ez dago. Egia da. Baina egia da, halaber, azken urteotako historia aztertzaile kritikoak harritu egingo liratekeela hau bezalako isilaldi lazgarriekin.

2. EREDUAREN MUGAK

2.1. Erakunde autonomikoen eskuhartze arautzailea ez zen eskumen materialeko eremuetara soilik mugatu behar.

Arestian esan dugunez, lurralde bakoitzeko parlamentuak euren hizkuntz legeak osatzen hasi zirenean, Auzitegi Konstituzionalak oraindik ez zuen argitu autonomi elkarteek gizarteko inguru guztietan —baita eskumen materiala Estatuari zegokion eremuetan ere— baliagarriak ziren hizkuntz sistema orokorreko oinarriak ezar zitzaketenik.

Elkargarritasun irizpide hau ezin izan zen kontuan izan, baina bestela,

**«Estatuko araudiak
berak (adibidez
etiketaia edo errepede
seinalizazioan)
eleaniztasun
berdintzailea bermatu
ordez "gutxienez
Estatuko hizkuntza
ofizialaren" erabilpena
behartzeaz soilik
arduratzen da»**

**«Auzitegi
Konstituzionalak
autonomi elkartetako
berezko hizkuntza
ofizialak ez ezagutzea
alegatu ahal izatea
onartu du, horrela
hizkuntz
ofizialtasunaren izaera
berari aurka eginez eta
gaztelaniaren aldeko
beste desberdintasun
berri bat ezarriz»**

autonomiako hizkuntz legedia koherentzi global maila batzuetara iristea ahalbidetu izango luke, eta asko argituko lirateke hiritarren eskubideak eta, ondorioz, erakunde publiko eta pribatuek eskubideok errespetatzeko duten obligazioa. Hasteko, adibidez, hiritar bakoitzak edozein erakunde publiko edo pribatuk zuzentzen dizkion komunikazioak zein hizkuntza ofizialetan jaso nahi duen aukeratzeko eskubidea daukala ezar zitekeen, eta hauetako edozein erakundek jendeari orokorrean (ez pertsonalizaturik) zuzentzen dizkion ahozko zein idatzizko komunikazioak katalanez bideratu behar direla, herrialdeko berezko hizkuntza beste hizkuntza baten menpean azpiratu gabe. Aukera hau aurrakusi izan balitz, gaur egungo hizkuntz sistemaren kasuistika eta zatiketa gehienak ekidin zitezkeen.

Oinarri orokorren marko honen gabeziak zaildu egin du hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren ulermena eta ezarpena, eta beraz, neurri handi batean mugatu egin du lehenengo autonomi etapa honetako hizkuntz normalizazio ereduaren eraginkortasuna.

2.2. Gizarte zibilaren bultzadak, katalanaren irakaskuntza eta erabilpen ofizialak, ITB autonomikoak eta beste alor batzuetan bizkortzeko zenbait neurri hizkuntz normalizazioan behar adinako aurreakuntza orokorra berma zezaketela sinestea baikorregia izatea zen.

Hasteko, aitortu beharra dago gizarte zibilaren bultzadari behar baino garrantzi handiagoa eman zitzaioela eta berez eman zezakeena baino gehiago espero zela berarengandik. Hizkuntzarekiko kontzientzia mailak eta berezko eskubideen defentsa aktiboa Kataluniatik kanpo askoz mugatuagoak ziren, eta Printzerrian bertan kontuan hartu behar zen bazeudela sektore pasibo, axolagabeak edota gutxi motibatua.

Gizarteko inguru guztietara katalanaren ezagupen eta erabilpenak zabalitzeak dakarren horrelako aldaketa soziolinguistiko sakona, ezin zitekeen hiritar bakoitzaren hizkuntz jokaeren eraldaketa kontzienteen esku utzi.

Kudeaketa publikoko beste zenbait alderditan bezala, demokratikoki ezarritako giza eraldaketako helburu kolektiboen eta hiritar bakoitzaren jokaera eraldaketako helburu pertsonalen arteko bitartekaritza, gizartearen bizkarrezurra osatzen duten era guztietako erakunde publiko eta pribatuen hizkuntz funtzionamenduan emandako aldaketen bidez lortu beharra zegoen. Erakunde hauen guztien hizkuntz funtzionamendua da katalanaren erabilpena ahalbidetzen edo eragozten duena, eta neurri handi batean marko honetantxe itxuratzen joaten dira pertsonen hizkuntz jokaera ereduak.

Erakunde egituraketa honetan administrazioak, irakaskuntzak eta komunikabideek aparteko garrantzia daukate, zalantzarik gabe.

Administrazioa da, batik bat, erakunde guztiak antolatzen dituena. Hezkuntza sistemak eta irrati-telebistak hizkuntza, kultura eta jokaera ohiturak transmititzeko duten garrantzia agerikoa eta ukaezina da. Ezinbestekoa zen hizkuntz politikaren oinarri garrantzitsutzat hartzea,

baina ziur aski ez zen nahikoa horrekin; nahiz eta administrazio alor guztietan eta irakaskuntza maila guztietan katalanak hizkuntz bideratzaile moduan erabateko erabilpena izan, edo irrati eta telebistan eskaintza konpetitiboa eduki ere; gainera, bi alderdi horiek Katalunian soilik daude lorbidean.

Autonomiako lehen etapa honetako hizkuntz normalizazio ereduak ez zion garrantzi gehiegi ematen erakunde eta harreman sozio-ekonomikoei, enpresei, kirol eta kultur elkarte eta entitateei, edota kultura eta aisialdiko enpresei. Autonomi politikaren interesa erakarriko duten transizio-ko leloak «Katalana eskolan», edota «katalana, hizkuntza ofiziala» izan ziren, eta ez «katalana enpresa eta komertzioan» edota «katalana aisialdiko jardueretan».

Sustapen neurriak soilik ez dira nahikoak izan sektore hauetako hizkuntz erabilpena neurri aipagarrian eraldatzeko, eta sektoreotan hasiera-hasieratik argi eta garbi utzi beharko ziratekeen normalizazioaren helburuak, nahiz eta gerora eraldaketa eritmoa mantsoa eta mailakakoa izan.

Aztertzen ari garen normalizazio ereduaren hutsunerik nabarmenena erakunde pribatuen hizkuntz funtzionamenduan jarduera arautzailerik egin ez izana da; horrela, alde batetik bezeroek, erabiltzaileek eta kontsumitzaileek egiten duten hizkuntz aukera errespetatzeko eta bestetik lan jarduera katalanez burutzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

3. EREDUAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA

Gizartearen bultzada

Lehen ere aipatu ditugu normalizazio prozesuan gizarte zibilaren bultzadari zegokionez aurrikus zitezkeen mugak, batez ere Kataluniatik kanpo. Alabaina, kontuan izan behar dugu hizkuntza, kultura eta nazio eskubideen aldeko mobilizazio batzuk izan zuten garrantzia, nola Printzerrian hala Valentziako Komunitate Autonomoan edota Balearietan. Arrazoi desberdin eta konplexuengatik pixkanaka desmobilizazioa gertatu da; horretan eragina izan du norberekeriaren zabalpenak, baina baita instituzioek hizkuntz eskubide kolektiboak irmoki defendatu ez izanak eta hizkuntz eskubide pertsonalak eraginkorki defendatzeaz arduratuko diren erakunde ofizialik ez egoteak.

Hiritargoaren epeltasun eta ahulezia hori ziur aski instituzioen, alderdi politikoan, intelektualen eta komunikabideen islada izango da, hauek oro har (beti ere badaude-eta salbuespen ohoragarriak) hizkuntz politika albo batera iragaten utzi baitute. Horren ondorioz gizarte zibilari hizkuntz normalizazioa aktiboki bultzatzeko gaitasuna agortu egin zaio.

Hizkuntz politikak

Hizkuntz politika autonomikoei dagokienez, hain leku urrian aipamen orokor bat egitea zaila da. Lehenengo oharpenak zera izan behar du, Ka-

1) Bestalde, abiapuntuko eskumenak eta gizarte egoerak ere ez ziren berdinak.

«Katalana dakiten hiritar guztiek (euren lehen hizkuntza izan ala ez izan) eta katalana erabiltzen duten entitate eta enpresa guztiek (euren lehen hizkuntza izan ala ez izan) beharrezkoa dute katalan hiztunen merkatugunea sendotzea, lana aurkitu ahal izateko lan merkatu edota bezero izan litezkeen multzo gisa»

talunian hizkuntz normalizazioaren eragina beste autonomi elkarteetan baino askoz ere handiagoa dela, bai hizkuntz politikaren ibilbide luzeagoatik, eta bai gobernuak gizartearen eremu guztietara iristeko izan duen borondateagatik ere.¹

Hala eta guztiz ere, hiru autonomi elkarteek hizkuntz politika albo batean kokatu dute (Kultur sailetan) eta ez erdi-erdian (Presidentzian), eta kasu guztietan zuzendaritza orokorra gainditzen ez duen estatusa eman diote (Katalunian kirolak, adibidez, Idazkaritza Orokorra dauka). Alboratze eta bigarren mailan jartze honek eragiten duen arazoetako bat autonomi elkarte bakoitzean hizkuntz politika orokorrean koordinazio bakar eta sistematikorik ez izatea da. Bestalde, azpimarratu beharra dago hizkuntz politikak lurraldeetan duen eragin desberdina Katalunian izan ezik, hor herrietako enteen lankidetzarekin Hizkuntz Normalizazio Zentruen lurralde sarea zabaltzen ari baita (Hizkuntz Normalizaziorako Partzuegoa).

Sektore ikuspuntutik, lehen ere aipatu dugu hizkuntz politika autonomikoek bereziki administrazio eta heziketa ingurua hartu zituztela ardatz. Kataluniaren kasuan zera esan daiteke: autonomi eta toki-administrazioek hiritarren hizkuntz aukera errespetatzeaz gain, katalana berezko hizkuntza gisa erabiltzeko bidean daudela (hutsunerik nabarmenak pertsonal politika eta udaltzaingoetan kokatzen dira). Beste autonomi elkarteetan administrazioak egiten duen katalanaren erabilpena askoz ere urriagoa da.

Hezkuntza sistemari dagokionez, antzeko balorazioa egin daiteke: hezkuntza katalanez jasotzeko aukera normalean Katalunian bermatuta egoten da, eta pixkanaka katalana irakaskuntzakoak ez diren jardueretarako hizkuntza propio bihurtzen ari da (hutsuneak, batez ere, bigarren mailako irakaskuntzan eta goi mailako irakaskuntzako zati batean azaltzen dira); beste komunitateetan egoera desberdina da (kontuan izan behar da, adibidez, Baleareak berezko hizkuntza duen eta hezkuntza eskumenak oraindik Espainiako Hezkuntza ministerioaren esku dituen komunitate bakarra dela) eta irakaskuntzan katalanaren erabilpen bideratzailea, oro har hartuta, defizita duena da.

Komunikabide eta kultur industrien inguruan, berriz, Kataluniako Generalitateak sortutako irrati eta telebista emisorek eta prentsa, argitalpen eta antzerkian bere laguntza neurriek kultur eskaintza nahikoa biribila lortu dute (hutsuneak komunikabide pribatu, prentsa eta argitalpen espezializatuetan, diskagintza, bideo eta, batez ere, zineman aurki daitezke). Berritro ere beste autonomi elkarteetan askoz ere gabezia ohargarriagoak nabarmendu behar ditugu. Hauetan, bertako gobernuak jarduerak geldo eta berantiaragoak burutu dituzte.

Jarduera sozioekonomikoei, kirolari eta aisaldiari dagokienez, hizkuntz politika jarduerak sektoreetan sentibilizazio eta laguntza neurriak ematera mugatu dira (jatetxe, taberna eta kafetegi; denda eta elikadura kate;

errotulazioa, turismoa, kirolak, automozioa...). Neurri hauen eragina kas-karra izan da, kasu honetan Katalunian ere bai. Katalanaren presentzia nabarmena da enpresa publiko edo zerbitzuetan (finantzak, garraioak, hornikuntzak) eta katalana oso nagusi den lekuetako zentru komertzial handi eta kirol elkarte batzuetan. Orain dela gutxi enpresa, sindikatu eta kirol entitate nagusienetan hizkuntz zerbitzuak sortu dira, eta horrek etorkizunari begira usteak aldekoagoak izango direla pentsarazten du, baina emaitzak oraindik ez dira ikusten. Kasu honetan ere Kataluniatik kanpoko egoera askoz ere okerragoa da, aginte autonomikoek ezer gutxi egin baidute.

Laburbilduz eta bukatzeko, ereduaren aplikazioak Katalunian soilik izan du bultzada maila aipagarria, bai gizarte zibilaren aldetik, bai instituzioen aldetik ere. Aplikazioan izandako hutsuneek funtsean ez zuten ereduaren eraginkortasuna aldatuko (esparru sozioekonomikoko hutsunea eredu beraren mugapenari lepora dakioke, eta ez bere aplikazioari). Hala eta guztiz ere, normalean katalanez bizi ahal izateko hiritarrek oraindik aurkitzen dituzten oztupoak handiak dira.

Beste autonomi elkarteetan gizarte zibilaren bultzadarik ezari ez zaio gogor egin hizkuntz politikako jarduera kementsuagoen bidez, eta horrela gabeziak pilatuz joan dira.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIO EREDU BERRI BATERAKO HAMAR OINARRI

Orain artean egin ditugun aipamen guztiekin, hirurogeita hamarreko hamarkadan jaio zen eta laurogeiko hamarkadan —hobeto edo okerrago, autonomi elkartearen arabera— ezarritako eredia agortuta dagoela adierazi nahi izan dugu: Kataluniaren kasuan ezin duelako ezer gehiago eman; beste lurraldeen kasuan, berriz, behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak ziren baldintza minimoak ez direlako bete.

Ikusi dugunez, premisak aldatu egin behar dira —marko juridiko eleaniztun berdintzailea lortu eta hizkuntz komunitatea era bateratuan artikulatu—; eredia bera aldatu beharra dago —alor guztietako erakundeentzat baliagarriak izango diren hizkuntz erabilpen oinarriak ezarri eta hizkuntz eskubide pertsonalak bete ahal izatea bermatu—, eta eredu berria ezarri beharra dago, gobernuaren jarduera eta bultzada soziala batak besteari laguntzeko moduan jarri, elkarren lana oztopatu edo elkarren aitzakian justifikatu gabe.

Gaur egungo egoeran ez litzateke egokia izango zaharkitua geratu den eredia indarrean luzatu nahi izatea, gauza txiki batzuk berregokituz. Eredu berri bat sortzeko unera iritsi gara, milurte berriaren hasiera arteko beste etapa berri bat gidatzeko gai izango dena, eta gu estatus egoki baterantza ahalegin egiteko moduan utziko gaituena. Orain eman behar da hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko borroka erabakiorra, hiru fenomeno hauetatik aprobetxatuz: lehenik, autonomien estatua berregokitzeko

«Gizarteko inguru guztietara katalanaren ezagupen eta erabilpenak zabaltzeak dakarren horrelako aldaketa soziolinguistiko sakona, ezin zitekeen hiritar bakoitzaren hizkuntz jokaeren eraldaketa kontzienteen esku utzi»

«Kudeaketa publikoko beste zenbait alderditan bezala, demokratikoki ezarritako giza eraldaketako helburu kolektiboen eta hiritar bakoitzaren jokaera aldatetako helburu pertsonalen arteko bitartekaritza, gizartearen bizkarrezurra osatzen duten era guztietako erakunde publiko eta pribatuaren hizkuntz funtzionamenduan emandako aldateten bidez lortu beharra zegoen»

bloke konstituzionala berriro negoziatuko dela; bigarrenik European sartzeari prozesu konstitutibo gisa eskaintzen dituen aukerak; eta azkenik, bilakaera soziolinguistikoaren norabidea, adibidez eskolan katalana ikasi duen belaunaldiaren kasuan, inguru sozioekonomikoaren normalizazioari ekitea ahalbidetzen baitu.

Aipatu ditugun arrazoiez gain, kontuan izan behar dira aurreko ereduak jaiotzen inguru politiko-sozialean izandako aldaketak.

Transizio politikoan nagusi ziren baloreek gerora sortutako hizkuntz normalizazio ereduaren euren azterketa sakona utzi zuten. Identitate kolektiboaren eta demokraziaren defentsa politikoari lotuta, karga ideologiko eta sinboliko astuna dauka eta belaunaldi gazteenek ez dute erraz egiten bat berarekin. Bere zilegitasun jatorria batez ere historikoa zen, askatasun kolektiboen etorrera edo berreskurapenean oinarritua, gutxi zehaztutako etorkizun zabalgunek batekin. Bere ikuspegia nahikoa barnerakoa zen, European sartzeko prozesuan gero eta garrantzitsuagoa zen nazioarteko inguruari jaramon handirik egin gabe. Oraingoan katalanarentzako, barne politika baino gehiago, inguru eleaniztun batean kokatutako barne eta kanpo hizkuntz politika behar dugu. Beste zentzu batean ere, ikuspegia barnerakoiegia zen: ez ziren behar adina kontuan hartzen aldateta soziolinguistikoaren eta aldateta sozioekonomikoaren joera handien artean dagoen lotura estua.

Balorazio hauetatik abiatuta, hizkuntz normalizazio eredu berri honek jasotzeko behar du lituzkeen oinarriak zehaztera joko dugu:

GIZARTEKO ALDAKETA NAGUSIEKIN BAT EGITEN DUEN GEHIENGOAREN EGITASMOA.

Gutxiengo jarreraren zilegitasuna eta erabilgarritasuna baztertu gabe, gizartearen eraldaketa demokratikoa proposatzeak jendearen gehiengoak beraiekin bat egiteko moduko formulazioak eskatzen ditu, euren behar eta nahiei erantzunak eta konponbideak aurkitzen baitizkiote. Eredu berriak erakargarria izan behar du aukera politiko, sektore sozioekonomiko eta hizkuntz talde gehientzat.

Gure helburua hizkuntza aldetik bizitzea merezi duen herrialde bat da: katalanez bizi ahal izateagatik, noski, baina baita beste hizkuntzekiko eskubide pertsonalak errespetatzen direlako ere, eta eleaniztasunak kanpokoekin harremanak izatea erraztu egiten du. Gure eskubide historikoak ahaztu gabe, horrelako etorkizuna lortzeko bildu behar ditugu ahaleginak. Helburu baten zilegitasun nagusia gehiengoak nahi izatea da, gizarteak behar izatea, eta hori inposaketa antidemokratiko batek soilik eragotziko luke.

Egitasmoarekin bat etortzea, beraz, arrazoi sinboliko/integratzailean baino gehiago instrumentu/erabilgarritasun moduko arrazoietan oinarritu behar du. Prozesua ezin dute biztanleen hiritartasun edota aberriaren aldeko ardura zentzuak bultzatu, baizik eta herrialdearen hizkuntz anto-

lakuntzaren funtzionamendu on baten bideragarritasun eta erabilgarritasun orokorreko konfiantzak, non mundu guztia eroso sentituko den. Katalana eta beste hizkuntzak, identitate ikur baino gehiago, ahalik eta eraginkortasun handinez kudeatu eta garatu beharreko baliabide gisa hartu beharko dira, eragozpen izan ordez kultur eta gizarte abantaila ezezik ekonomi aldetik ere abantaila izan daitezten.

Horregatik da hain beharrezkoa hizkuntz normalizazioa gizartearen dinamika orokorrean sartzea, horrela garapen demografikoen, harreman ekonomikoen, joera politikoen edota ohitura eta pentsakera aldaketek azaleratzen dituzten hizkuntz beharrei erantzuteko. Era horretan bakarrik parte hartuko du egitasmo nazional orokor batean (zentzu guztietan bizitzea merezi duen herrialde batean), eta egitasmo horretan hizkuntza, nahi ala ez, ezin da bereizi. Katalana gizartean nagusi izateko nahi horrek ez luke lekurik izango menpekotasun politikoa, kulturala, ekonomikoa eta soziala onartuko litzatekeen marko batean.

Eredu berri hau prestatzea ez da erraza izango. Hizkuntz lege berri bat ateratzeak soilik horrenbesteko aldaketa sozialak eragingo —eta are gutxiago indartuko— dituelako ustea alde batera utzi beharra dago. Nahi kolektiboak eztabaida publikoan gorpuztuko dira eta oro har elkarbanatutako egitasmo bat osatuko da, eta indar politikoen lana izango da egitasmo hau gobernu programa bihurtu eta beharrezkoak diren lege jarduerak ekiten. Lege aldetiko marko berriak aldaketaren jatorri baino gehiago ondorio izan behar du.

II. UNIBERTSALKI BALIODUNAK DIREN OINARRI JURIDIKOAK: ELEANIZTASUN BERDINTZAILEA

Beraz, argi dago egitasmo berriak lege markoa berriro aztertzea eragingo duela, eskubide oinarri nagusien arabera. Alde honetatik, gure hizkuntz komunitatea ez dugu hartu behar formula zehatz bat behar duen kasu berezi baten moduan; aitzitik, gure hizkuntz arazoak funtsean —eta hauek estatu propioa izan ala ez— beste komunitate txiki batzuen antzekoak direla hartu behar dugu abiapuntutzat. Beraz, ez daukagu bakarka zer ibilirik estatus juridiko egoki baten bila: munduko hizkuntz komunitate gehienak beste hizkuntz hedakor bakan batzuekiko gutxiengo egoeran daude.

Pluraltasuna babestu ahal izateko, nazioartean oreka berria ezartzeak eskubide kolektiboen zehaztapen zuzenagoa eskatuko duela aurriztatu da, munduko merkatua bateratu egin baita eta potentzia handiek herrialdeak irensteko aukera inoiz baino errealagoa baita.

Hizkuntzaren inguruan pluraltasun berdintzailea defendatzeak komunitate guztiek euren lurralde historikoan eskubide berak izatea dakar berekin, pertsonen hizkuntz eskubideen berdintasunerako ezinbesteko berme gisa. Gizarteak lurraldeko hizkuntzan funtzionatu beharra dauka, gutxienez gehiengoak ezagutzen duenean bai behintzat, gure kasuan ger-

«Arrazoi desberdin eta konplexuengatik pixkanaka desmobilizazioa eman da; horretan eragina izan du norberekeriaren zabalpenak, baina baita instituzioek hizkuntz eskubide kolektiboak irmoki defendatu ez izanak eta hizkuntz eskubide pertsonalak eraginkorki defendatzeaz arduratuko diren erakunde ofizialik ez egoteak»

**«Orain artean egin
ditugun aipamen
guztiekin, hirurogeita
hamarreko hamarkadan
jaio zen eta laurogeiko
hamarkadan —hobeto
edo okerrago, autonomi
elkarteen arabera—
ezarritako eredia
agortuta dagoela
adierazi nahi izan
dugu»**

tatzen den bezala, horrela erabilpen publikoetan komunitate bakoitzak bere hizkuntzaren lurraldetasun lehentasuna errespetatua ikus dezan. Jakina, zenbait lurralde-hizkuntz historiko elkarrekin bizi diren kasuetako marko politikoetan (estatukoak edo supraestatalak), hizkuntz komunitate *osagai* guztiek —hau da, fundatzaileek— organo amankomunetan eta bakoitzaren lurraldeetan eskubide berak izan behar dituzte.

Hizkuntz komunitate bakoitzaren lurralde lehentasun honen barnean bakarrik egin daiteke bideragarri hizkuntz eskubideen berdintasuna: bakoitzak bere komunitate barruan bere eskubide pertsonalak burutzeko aukera izango du, inolako mugarik gabe; bere lurraldeaz kanpo (eta estatu edo nazioarteko instituzio amankomunetako harremanetan) eskubide pertsonal kopuru nahikoa handia aitortu ahal izango zaio hizkuntz gutxiengoei; eta pertsona orok oinarri-oinarrizko hizkuntz eskubide batzuk izan behar ditu, nahiz eta bere lurraldetik kanpo egon (adibidez hor daude prozesatu edo atxilotuen hizkuntz eskubideak, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak agintzen duen moduan).

III. HIZKUNTZ NORMALIZAZIOAREN ZUZENDARITZA BATERATUA, OROKOR ETA SISTEMATIKOA.

Hizkuntz normalizazioa ezin da gai kultural baten ikuspegitik ikusi, bizitzako alderdi eta gizarteko esparru guztietan baitu eragina. Beraz, hizkuntz politikarako zuzendaritza organoek autonomi elkarreetan leku nagusia izan behar dute, gobernuko sail guztietako hizkuntza aldetik garrantzitsuak diren gaiak orokorrean eta sistematikoki koordinatzeko gaitasunarekin. Leku nagusi honetaz gain, koordinatzeko gaitasuna zuzendaritza organoen estatusaren araberkoa ere izango da eta honek ez luke izan behar Idazkaritza Orokorra baino garrantzi gutxiagokoa.

Prozesua oro har eraginkorra izateko ezinbestekoa da, halaber, hizkuntz normalizaziorako sailen arteko, lurraldeko eta sektorekako erakunde bat izatea. Egitasmoaren formulazioak denen artean egindako Hizkuntz Normalizaziorako Plan Orokorrean hezurramitu behar du, bertan isladatuz helburuak lortzeko parte hartzen duten agente guztien lana.

IV. ALDEKO HIZKUNTZ KONTZIENTZIA

Burutu ahal izateko oinarritzko baldintza da gizarteak hizkuntz normalizazio egitasmoan bere uste osoa izatea. Biztanlegoa informatu eta sentibilizatu egin behar litzateke, prozesuaren helburuak ulertu eta beregantzeko: katalanaren lurralde eskubideen lehentasuna eta inoren menpe ez dagoen bere ofizialtasuna, hizkuntza aukeratu ahal izateko eskubide pertsonalak errespetatu; zazpi milioi hitzun baino gehiagoko hizkuntz komunitate baten bideragarritasun erabat normala; funtzio guztiak betetzeko hizkuntza estandar katalanaren egokitasuna; eta abar.

Oso garrantzitsua da mundu guztiak normalizazio prozesuaren oinarri, helburu eta etapak zein diren argi eta garbi ezagutzea, eta aldiro egiten

diren aurrerakuntzen berri izatea, prozesuaren arrakastarenganako uste osoak bizirik iraun dezan.

Halaber, mundu guztiak jakin beharra dauka badaudela hizkuntz eskubide pertsonalak babesteko mekanismo eraginkorrak. Gizarteak hizkuntz normalizazioan uste osoa izan dezan, oinarriak eskubide kolektiboen defentsan tinkotasun politikoa eta eskubide indibidualak babesteko eraginkortasun juridikoa dira.

V. HIZKUNTZA ESTANDARIZATU BAT ETA ERABILPEN ESPEZIALIZATU GUZTIETARAKO EGOKIA

Hizkuntz normalizaziorako beste eskakizunetako bat hizkuntzaren funtzio guztiak betetzeko eredu eta irizpideak (informalenetatik hasita espezializatueneraino) eskura izatea da.

Araudian oraindik erabaki gabeko alderdiak osatu edota eguneratu ahal izateko hizkuntza orokorra kodifikatzeko lanak bultzatu egin beharko dira, eta batez ere, jakintza alor desberdinetako berezko hizkuntza espezializatuak egitea suspertu (alor horietan, tokian tokiko hizkuntzalari eta adituek lagundu beharko dute).

Hizkuntz eredu hauen bideratze edo hedapenak laguntza izan beharko du hiru agente hauen aldetik: hezkuntza sistema (espezialisten trebakuntza lanetan espezialitate bakoitzari dagokion hizkuntza menperatzea eskatu beharko da), argitaratzaileak eta komunikabideak. Baina aldi berean unean uneko kontsultak, testuen itzulpen edota berrikuspenak bermatu beharko ditu, hizkuntz aholkularitzazko sare eraginkor baten bidez.

VI. HIZKUNTZ EZAGUPENEN ZABALPEN OROKORRA

Bere erabilpena zabaldu aurretik, katalanaren ezagupena zabaldu behar da gizarte osora. Bereziki zaindu beharra dago behartutako eskolaratzean ematen den katalanaren ikasketa prozesuaren eraginkortasuna, ikuspegi pedagogiko eta aktibo batetik (eta katalanaren erabilpen bideratzailearen bidez) ikasle guztiek katalana praktikan, eta ez soilik errezeptiboki menperatzea bermatuz. Zentzu honetan, arreta berezia eskaini behar zaie Hezkuntza Erreformaren hizkuntz ondorioei.

Honekin batera, ezaugarri orokorreko eta orientazio bereziko ikastaro zabal eta desberdinen eskaintzek, ahalegin txikienarekin edozein pertsona helduri eta edozein profesionali bere jardueretarako behar duen hizkuntz trebakuntza bereganatzea ahalbidetu behar diote.

Modu berean, beste hizkuntzetako trebakuntza dibertsifikatu eta bere eraginkortasuna hobetu beharra dago, bai hezkuntza sisteman bai lanbide jakin batzuetara bideratzeko ikastaroetan.

VII. SEKTOREEN ARABERAKO IKUSPEGIA ETA LEHENTASUNEN ARABERAKOA

Oro har hartuta, hizkuntz normalizazio prozesu baten helburu nagusia,

«Gaur egungo egoeran ez litzateke egokia izango zaharkitua geratu den eredu indarrean luzatu nahi izatea, gauza txiki batzuk berregokituz. Eredu berri bat sortzeko unera iritsi gara»

«Ez ziren behar adina kontuan hartzen aldaketa soziolinguistikoen eta aldaketa sozioekonomiko joera handien artean dagoen lotura estua»

lehen fase batean, hizkuntza katalanaren hiztunen hizkuntz aukera egiteko eskubide pertsonala erabat errespetatua izatea izan behar du, edozein erakunde publiko edo pribaturekin mantendu beharreko harremanetan eta edozein komunikazio motan, bai ahozkoan bai idatzian. Prozesuaren bigarren faseak, berriz, eta lurraldeko hizkuntza den neurrian, erakundeek funtzionatzeko erabiltzen duten ohiko hizkuntza katalana izatea bermatu beharra dauka, eta denek lan jarduerak katalanez burutu ahal izatea.

Esan dugunez, prozesu honek erakunde publikoen eta bereziki pribatuen hizkuntz funtzionamendua aldatzea ziurtatuko duen jarduera arautzailea eskatzen du (laguntza neurriekin batera). Kontuan izanda ia erakunde guztiek behar eleaniztunei aurre egiteko euren hizkuntz eraketa egokitu beharra daukatela, aukera egokia izango litzateke administrazioetik katalana eta beste hizkuntzak ikasteko laguntza zerbitzu eskaintza bat egiteko, hizkuntz ahokularitza neurriekin batera.

Administrazio autonomikoak enpresak (bereziki txikiak eta ertainak) berritzeko ematen dituen laguntza guztiak ikuspegi bateratu batetik ikusiz gero eta laguntza horren truke dirulaguntza jasotzen duten enpresa horien jardueretan katalana erabiltzea eskatuz gero, soilik horrekin baka- rrik, politika honen eraginkortasuna ziurtatuta legoke, eta konpetitibitate eta identitatea indartuko litzuzke, bi elementu zatiez, Generalitateko presidente berak esan duen bezala.

Horrekin batera, kontsumitzaile eta erabiltzaileek informazioa katalanez jasotzeko eta katalanez mintzatzeko daukaten eskubidea ezartzen bada, horrek entitateetan hizkuntz normalizazioa eta funtzionamendu eleaniz- tuna bermatuko lukeen pertsonal eta komunikazio politika eragingo luke.

Jakina, prozesu honetan badaude bereziki atzeratuta dauden sektore so- zioekonomikoak eta hauek lehentasun nagusia izan behar dute. Gainera enpresari eta sindikatuekin hizkuntz normalizazioaren etapei buruzko adostasuna lortu beharko da.

Lehentasun nagusi horrekin batera, arreta berezia eskaini behar zaie haur eta gazteen belaunaldiari. Hauek dira, egia esan, jadanik hizkuntz nor- malizazioan bizitzen hasi behar dutenak, euren ikasketa jardueretan zein aisialdian, eta gazte jarduerekin lotura duten alderdi guztiekin. Katala- nez ikasteko, dibertitzeko edo lan egiteko zailtasun larriak bere horretan jarraitzen badute, etorkizun hauskorreko hizkuntz normalizazioa eraiki- tzen arituko gara.

VIII HIZKUNTZA KATALANEKO LURRALDE GUZTIEN ARTEKO KOOR- DINAZIOA GERO ETA HANDIAGOA

Ez da beharrezkoa hemen ere aurreko ataletan esan duguna errepikatzea. Lehenago iradoki dudanez, arrazoi askorengatik ezinbestekoa da gure hizkuntz komunitatearen egungo zatiketa gainditzea eta ahalik eta lu- rralde gehienekin eta ahalik eta gai gehienei buruz akordioak bultzatzea;

erabilpen ofiziala eta administrazioaren hizkuntz politika, katalanaren irakaskuntza, berezko komunikazio eremua lortzea, kultur industriak, gizartearen katalanaren erabilpena, estandarizazio prozesua, nazioarteko proiektzioa...

IX. ESTATU MARKO BARRUAN ESTATUS BERDINTZAILEA

Estatu markoan ezinbestekoa da Estatuari bere hizkuntz politikaren helburuak zehaztera behartzea eta katalanari —estatuko bigarren eta 10 bat milioi laguntzat (estatuko laurdena) ofiziala den hizkuntzari— eman behar dion trataera azaltzea. Estatuko hizkuntz politika etengabe zaintzeak ekinbide politikoa eskatzen du, bi helburu nagusirekin: lehenik eta behin egungo marko juridikoa era eskuzabalean eta ez murriztailean ulertzea eskatzea, eleaniztasun berdintzailearen bidean aurrera eginez (Estatuko organo amankomunetan —era errezeptiboan bada ere— katalana onartzea, katalanaren ezagupena estatu-lurraldean zehar bultzatzea, kanpora begirako proiektzioa eta Europaren errekonozimenduan laguntzea, eta abar) eta bigarrenik, Balearreetako Hizkuntza Normalizazio Legearen sarreran jasotzen den bezala, lurraldeko hizkuntzaren lehentasuna errespetatuko duen ofizialtasun bikoitza lortzea.

Baina gure burua ez dugu mugatu behar egungo lege markoaren irakurketak eskatzera soilik. Konstituzio eta autonomi estatutuetakoko testuen berrikusketa bat gerta litekeela kontuan izanik, estatu ereduaren berregokipenez baliatu beharko litzateke katalana argi eta garbi pareko hizkuntz moduan hartua izan dadin, hizkuntza *konstitutibo* gisa, eta ez menpean dagoen hizkuntza moduan, menperatuta dagoen herri batekoa bailitzan.

X. EUROPA ETA MUNDUAN ZEHAR ERABAT ERREKONOZITUTAKO HIZKUNTZ KOMUNITATEA

Europako markoan katalanak hizkuntza *konstitutibo* izaera hori lortzera iritsi beharra dauka. Europako Elkartea zabaltzeak ziurrenik hizkuntz ofiziala (hiritarrek komunitateko instituzioekin izango dituzten harremanetan erabili ahal izango dutena) eta lan hizkuntza (instituzio barnean erabiltzekoa) artean bereizketa egitea ezinbestekoa izango da. Katalanak ez dauka lan hizkuntza izateko ez aukerarik ez beharrik, baina era ofizialean errekonozitua izan behar du eta beste edozein hizkuntza bezala (edo are gehiago, lan hizkuntza moduan onartuak izango diren beste hizkuntza handiekiko desberdintasuna orekatzeko) elkarteko programetako fondoetara sarbidea izan behar du.

Bestalde, lurralde bakoitzeko hizkuntzen osotasuna babestuko duten hizkuntz baldintzen lege marko bat ezarri beharra dago, horretarako kontuan izanda lurralde bakoitzean emango den salgaien zirkulazio librea (etiketaia, komertzializazio prospektu eta agiri, eta abar), langileak (lanpostu jakin batzuk eskuratu ahal izateko lurralde bertako hizkuntza ezagutzea), ezartzeko edo zerbitzuak libreki emateko askatasuna.

«Katalana eta beste hizkuntzak, identitate ikur baino gehiago, ahalik eta eraginkortasun handienez kudeatu eta garatu beharreko baliabide gisa hartu beharko dira, eragozpen izan ordez kultur eta gizarte abantaila ezezik ekonomi aldetik ere abantaila izan daitezten»

**«Hizkuntz komunitate
bakoitzaren lurralde
lehentasun honen
barnean bakarrik egin
daiteke bideragarri
hizkuntz eskubideen
berdintasuna»**

EREDU BERRIRANTZAKO TRANSIZIOA ETA APLIKAZIOA

Ez nuke orain arte egindako planteamendu eskematikoek irakurleari sinpletasun edo banalitate irudia ematerik nahi, iradokizun hauek guztien berehalako eta aldibereko aplikazio erraza buruan ipiniz.

Errealitate eta dinamika soziolinguistikoa aditzera eman duguna baino askoz ere konplexuagoak dira. Aginte publikoek hizkuntz politikan jarduera era desberdinak eratzea ez da, ez, lan samurra. Gehiengo zabaleko kontsentsu sozial berria ez da egun batetik bestera osatzen. Laburbilduz, proposatutako ereduak ezartzeko prest egon aurretik, askoz ere zehaztaperen eta biribiltze handiagoa behar du, askoz ere berrikuspen kritiko gehiago eta askoz ere gizarte onarpen handiagoa.

Halaber, ez dut nire planteamendurekin eredu berri horretarantzako aldakera hasteko asmorik. Zuzenago edo okerrago, aurreko ereduaren inguruan azaldu diren jarrera kritikoek —bere zehaztaperen eta aplikazioaren aurrekoek ere bai— paradigma berri dei diezaiokegun baten sorkuntza bati aportazioak egin dizkiote. Eta oraintsuago, asko izan dira indarrean dagoen ereduaren inguruko puntu desegokiei buruzko adierazpenak.

Dagoeneko hasi da eredu berri baterantzako transizioa eta aurrera egingo du bere bidean, indibidualki egin dakizkiokeen aportazioengandik independentziaz. Ea behingoz egitasmo kolektiboen osaketa errazten duten erakunde eta instituzioek —komunikabide, alderdi politiko, sindikatu, parlamentuko organo, eta abar— aktiboki laguntzen duten eredu berri bat sendotzen, gizartean nagusi den borondatea bilduz. Bestalde, ez da gutxietsi edo arintasunez hartu behar eredu berdefinitzeko gaitasunik ezaren aurrean noraezean gelditu gaitezkeelako arriskua, hizkuntz normalizazioak izan behar duenari buruzko ikuspegi zatitu eta aurkakoezin, bakoitza aurreko ereduaren zati bat eskuetan duela.

Baina ez da arrisku hau exajeratu beharrik ere, gure arazoak prozesa-tzeko eta berregokitzeko gaitasunean deskonfiantza erakutsiz. Eta are gutxiago arazo hauek, neurri handi batean behintzat, nahi diren eta positiboak diren garapen soziolinguistiko batzuen ondorioak direnean. Aurreko gure normalizazio ereduaren krisia hazkunde eta aurrerakuntza-krisia da, eta gure gizartea gai da erronka hori gainditzeko, baldin eta hizkuntz normalizazio eredu berri baterantzako bidean azaldu diren ekimenak aktibatu eta biltzen badira.